

3. alea / 2001eko uda

Leizako
aldizkari
gaztea

Marmari

Iritsi da uda!...
uff, hau berooaaa!

frexkatu gurekin!



ale honetan:



- **3. or.** Editoriala
- **4-5-6. or.** Nor da gay? Leitzan ere bai?
- **7. or.** Kolaborazioa: Alfabeto deserosoa
- **8. or.** - Ezetz Asmatu. Pertsonai izkutua
- **9-10-11-12-13. or.** Mahai ingurua: harremanak
- **14. or.** - Testa: Benetako leitzarra al zara?

15. or. Hizkuntzarekin jostatzen

16. or. Fotonobela. Euskal Herriko fauna

17. or. Leitzarren idazlanak. Ba al zenekien?

18. or. Gora ziñuzen aditza!

19. or. Eroskopoa, txistek...

USK

Berriz ere protesta! Bai kargan-teak! Hala izanen da, agian, baina protestak eta mugitzeak gauzak berehala konponduko ez dituen arren, protesta egin gabe eta mugitu gabe dena okerragoa izanen litzateke, zalan-tzarik gabe.

Eta zer dugu orain protesta egiteko? Betikoa, neska-mutil, betikoa: euskara. Bai, e-u-s-k-a-r-a, G-U-R-E-H-I-Z-K-U-N-T-Z-A, ze demonio! Euskara baino gehiago, euskararen kontrako gorrotoa, grina, ezin eramana eta itsukeria dugu protesta egiteko arrazoi. Ezin baitugu ulertu nola joka litekeen hain zeken, hain zital, hain zipotz, gure-gurea, denona den hizkuntzaren aurka.

Edo zer da bestela Leitzan mediku iza-teko ia-ia berdin baloratzea euskaraz edo alemanieraz jakitea? Edo euskaraz ikasi duten ikasleei Unibertsitatean euskaraz ikasteko eskubidea ukatzea? Edo «es-kualde mistoa» delakoan Nafarroako Go-bernuko lanpostu-deialditan alemaniera, frantsesa eta ingelesa baloratzea eta eus-kara ez? Edo...? Esan bezala, Nafarroako Gobernuak euskararen aurka hartu dituen erabakiak eta neurriak ezin ditugu ulertu.

Baina, kontuz! Jokabide hori ulertu ezin dugun bezalaxe, nahikoa lan ematen digu beste jokabide hau ulertzeak, alegia, «euskara bihotzean, eta erdara mingaine-an». Izan ere, kontraesan latza da Nafarroako Gobernuaren erabakien aurka hitz egitea, manifestazioetara joatea, euskararen aldeko ekitaldietan parte hartzea... eta aldi berean lagunartean eta euskaldunen artean erdaraz hitz egitea. Zertarako nahi dugu Toki Administrazioiko Departamentuaren inprimakia edo ziurtagiria euskara txukunean jaso, gure anaia, arre-ba, lagun, elkartekide edo amorante euskaldunarekin erdaraz hitz egiten badugu?


Zertarako ikasi nahi dugu euskaraz, zertarako nahi dugu haurrek euskaraz ikastea, edo zertarako izan nahi dugu administrazioarekin euskarazko harrimana, guk gerok aukera dugunean eta gure ingururik hurbilenean erdaraz hitz egiten badugu?

Tira, kontraesanen zakua astuna da, karga handikoa, eta ez dugu zuenaren zama gehiegi handitu nahi, gurea ere nahikoa kargatua dago-eta. Baina gutxienez, euskara dela eta ez dela, zama arintzeko balio lezaketen ideia batzuk emanen ditugu, kontzientzia zuritzeaz gainera euskara zer edo zer indartzeko balio dutelakoan. Elizaren 10 agindu horien kutsua hartzen dionari esan behar diogu lasai egoteko, gomendio hauek ez betetzea ez dela bekatua eta guk ez diogula inori konturik eskatuko, horretarakoxe baitauka nork bere kontzientzia.

Hemen dituzue, beraz, zenbait ideia, guztiok egin dezakegun ahalegintxo. Euskarak hori baino gehiago ere beharko du baina, tira, hau egiten badugu, zerbait ere bada.

1. ■ Lehendabiziko hitza euskaraz: administrazioiko lehiatiletan; tabernetan, dendetan, zerbitzu publikoetan; telefonoz deitzean edo telefonoa hartzean.
2. ■ Gure etxeko telefonoaren erantzungailua euskaraz jarri.
3. ■ Ordainagiriak eta jakinarazpen guztiak euskaraz eskatu (udala, posta zerbitzua, bake epaitegiak, banketxeak...). Euskaraz jaso arte ordainketak edo erantzunak atzeratu.

4. ■ Erdara hutsez jasotzen den publizitatea jatorrira itzuli, euskaraz bidal dezaten eskatuz.
5. ■ Banku eta aseguru etxeetan arreta eta kontratuak euskaraz eskatu.
6. ■ Zure elkarteko (kirol elkarte, mendi talde, kultur elkarte...) oharrak, deialdiak, aktak... euskaraz eskatu.
7. ■ Euskaldunekin euskaraz hitz egin.
8. ■ Erosketak egiten ditugunean edo kontratuak egiten ditugunean fakturak, erreziiboak, azalpenak, aurrekontuak... euskaraz eskatu



Nor da gay? Leitzan ere bai?

«Gaie bazeok nahikoa. Sue biztea falta dok»

Uste baino gehiago kosta zitzaigun X.ekin elkarrizketa hau izatea. Kanpora jo behar izandu genuen eta kanpotarren laguntzaren bidez osatu saio hau. Donostiatik etorri zitzaigun laguntza hori, hango gay-en talde baten eskutik. Ibili eta buelta, Tolosako ostatu batean elkartu ginen X.ekin, maiatzeko arratsalde triste batean, euria ari baitzuen. Tabernan sartu eta han, zokoko mahaiaren atzean zegoen eseria gure solaskidea, begira-begira, zigarroa eskuan zuela, zein joanen ote zitzaion zain. Edateko zerbait hartu eta parean eseri nintzen.

■ **Iepa!**
Zer dugu?

■ **Hementxe, zerbatte egin nahian.**

Besteak ere hala moduz ibiltzen gattok.

Kontu-kontari egon ginen pixka batean eta gero gaiari heldu genion.

■ **Zenbat urte dittok?**
Hogeita hamarretik gora.

■ **Kontatu zerbatte ume garaiaz.**
Nik esanen nitek bestek zer itten zuen, nik ere beste horrenbeste itten nula. Eskola garaien eskola, ume asko izaten giñuzen, eta eskolan betiko martxa. Jostetan ere ibiltzen giñuzen, futbolen eta, pillotan eta, harri tiraka eta... gerrak ere bai, gure arten. Errekara ere joaten giñuzen, zalburuk harrapatzea edo, ustez biñipin. Eta hola, herri ttikitako ibillerak eta bihurrikerik. Udan bainatzera ere bai, eta jakiñe, han eta

hemen, halaxe hasten haiz pixkoat esnatzen eta ia ohartu gabe jendeari erreparatzen.


Ordureko telebisioa ere hasie huen eta telebisioa ikusten giñien, astelaunen gauen ez, baina lanbeten eta iandetan bai. Eta bestela, ba betikoa, umea beti ume izaten baitok. Eta holaxe. Zer nahi dok esatea?

»» ume garaitan...


«...eskolan betiko martxa. Jostetan ere ibiltzen giñuzen, futbolen eta, pillotan eta, harri tiraka eta... Errekara ere joaten giñuzen, zalburuk harrapatzea edo, ustez biñipin. Eta hola, herri ttikitako ibillerak eta bihurrikerik. Udan bainatzera ere bai, eta jakiñe, han eta hemen, halaxe hasten haiz pixkoat esnatzen eta ia ohartu gabe jendeari erreparatzen.»

■ **Ba nik misterio gehio esperonien.**

Ba misterioa edo saltsa geroxio hasten dok, gehixeo kozkortutakoan. Badakik, berdekeritan hasten haiz, bakarrik edo, launekin edo, berdekeritan, adinen aiora, erdiko hanka horrekin jostetan, eda-dea ere halakoa dok, eta gu ere igual, igual. Eta akordatzen nak motiko kozkor batzuk elkartzen giñuzela, zakillek astin-



Nor da gay? Leitzan ere bai?



du eta apustue itten giñula hazie zeinek errutio bota. Eta hola. Elkar ukittu ere bai, barrabillek edo, hau edo beste, jostetako gogoa, bada-kik.

■ Adin horretan izaten dittok lehen harreman sexualak...

Bai, baño gure garaien oso zalle huen, bai neskakin eta bai mutillekin. Xirri betzuk, musu betzuk... Gauz haundik ez.

Geroxio bai, gexio muitzen giñuzen eta iandetan Malloata joaten giñuzen. Han trago batzuk edan, pixkoat dantzatu eta ahal zena in, eta kitto. Ahal bazen eskue sartu edo... Gañea ni oso izue nak. Badakik izaten dittok batzuk suerte haundigoakin, lantzatugoak, hortan ere. Ba ni ez.

Eta hola, mutill batekin osota txoratu niñuen. Malloata etortzen huen mutill hori eta tratu pixkoat bagiñien. Bera neskakin ibiltzen huen e, mutillekin ez, pena. Eta ni osota txoratue. Baño nola esan behar neioan? Kriston depresioa harrapatu nien. Hortaz gañea hasten haiz diferente sentitzen, launekin eta. «Horroko horrek ze titi puskek, hi», «Hako hark ze atzealdea, hi», hau eta bestea, esaten zien launek eta nik ere bai, jakiñe, baño kaskoan ez nien horrenik, ez. Nik kaskoan dena beste aldera.

Eta lehen esan doten depresio hori. Hemeretzi bat urte izanen netien; bai halakon bat. Ba holaxe arkitzen haiz, eziñen. Ezin haiz iñorekin mintzatu. Badakik, marikona izatea azkenekoa dok ba. Eta badakik zer pentsatu nun?

Arrosiko harrobi hortara motorren

gaztetan...

«...mutill batekin osota txoratu niñuen. Malloata etortzen huen mutill hori eta tratu pixkoat bagiñien. Bera neskakin ibiltzen huen e, mutillekin ez, pena.

Eta ni osota txoratue.

Baño nola esan behar neioan?

Kriston depresioa harrapatu

nien. Hortaz gañea

hasten haiz diferente sentitzen, launekin eta.»

joatea ta taka! hortxe garbitzea nere burue. Garbittu eta kitto. Bolada baten izandu nien hori kaskoan...

■ Ez nien behin ere pentsatu holakorik izan zittekenik...

Bai gizona, orain diferentexeo zeok, baño garai hartan nik uste dit billurre haundie zegoala, haundie billurre, haundie, bai. Billurre gurasoari, billurre senideri, billurre launeri, nork bere bururi ere billurre. Dena azpitik, dena izkutun, dena gorden... Esplikatzen zalle dok, baño halaxe huen.

■ Eta denbora askoan segittu huen hola?

Gutxi gorabehera soldaduskera joan arte. Ziudade haundi beten in nien nik soldaduske. Eta kuartelen kriston katxondeoa zegoan eta kanpoan zer esanik ez. Soldaduskeko denboraz nik ez dit kejarik. Bai al dakik zergatik?

Ba taberna horitako baten teniente batekin topo in nulako. Geroztik akabo nere problemak soldadusken. Eta denak esaten zien kapellana ere marikona zela, eta soldadu betzuk bere etxera joaten ziela atsaldetan. Ni ez niñuen behin ere tokatu, baño kontu hori oso zabaldu zegoan kuartelen.

Marikonan taberna horitan konturetzen haiz ez haizela bakarra. Kuartelekoak salle ibiltzen hittuen. Kapellana ere, dirudinez, halakoa. Gero asko eza gutzen dittok ingenieroak, arkitektoak, maisuk, abogaduk, denetik eta asko.

Hango alkatea, hemengo diputadue, fabrike hartako enpresarioa, denetik. Eta leku guzitan pasatzen dena, batzuk gizaseme ederrak eta beste batzuk eskasagoak, jakiñe. Eta ongi pasatu nien, ligatzen ere hantxe ikasi bainien. Gainera ba, odola orain baño berroxioa, badakik gaztea zer den...

■ Eta soldaduske bukatu zenen zer?

Ba berriz ere herrizulora eta betikora. Baño ordun hasi niñuen geixeo munitzen, hara eta honera, Donostire batez ere. Jakiñe, zerbatte nahi bedok muttu in behar dok. Eta herrin, lehengora bueltatzen haiz, betiko lekuk, betiko launek, betiko familie. Baño bazeok diferentzie: pixkeka-pixkeka jendek andregaiak itten zetik, lehenbizi honek, gero beste hark eta konturetzen haizenerako bakarrik hago, koadrillen esan nahi dit. Beno, ale batzuk gelditzen dittok mutil-

«soldaduskan...»

«Marikonan taberna horitan konturetzen haiz ez haizela bakarra. Kuartelekoak salla ibiltzen hittuen... Gero asko ezagutzen dittok ingenieroak, arkitektoak, maisuk... Eta ongi pasatu nien, ligatzen ere hantxe ikasi bainien. Gainera ba, odola orain baño berroxioa, badakik gaztea zer den...»

zahar, baño gure koadrillen inor ere ez. Eta bakardadea ditteken gauzik tristena dok. Tristea.

■ Eta Leitzen ez al dau ligatzeko moduik?

Nahiko lan. Nik herrikoak beste batzuk ezagutzen zetit, noski, baño nik uste kanpoan ibil-

tzen gala ligatzeko garaien. Herrin ere, littekena, igual... Ezkonduk ere egonen dittok, batzun batzuk, eta moldatuko dittok nolabatte ere. Horren gañen konatatuko dit istori bet, neri pasatue. Behin ehizera joan giñuzen laun bat eta bik. Bera ezkonduie zeok, e. Pixkoat ibilli eta badakik, hameiketakoa, galanta gainera eta trago dexente ere bai. Kontue gora, kontue behera eta azkenen betiko gaie, zakill kontue, aleie. Ni ohartu niñuen muimentue zula galtzan azpin. Eta hue hala ekustekin, ba ni ere muimentun hasi niñuen. Hantxe jo giñien larrue. Ez dok siñistetuko? Ba egi berdaderoa dok. Zer nahi dok esatea?

«eta Leitzen?»

«Nahiko lan. Nik herrikoak beste batzuk ezagutzen zetit, noski, baño nik uste kanpoan ibiltzen gala ligatzeko garaien. Herrin ere, littekena, igual... Ezkonduk ere egonen dittok, batzun batzuk, eta moldatuko dittok nolabatte ere.»

■ Eta herriko homosexualak elkartzeko edo kuadrille bat itteko edo beste zerbatte?

Hori etzekit. Donostin eta Iruñen eta holako lekuten bazeudek grupoak eta pestak eta itten zetie. Elkarrri laundu ere bai. Nik uste hemen ere, nahi izanezkio, zerbatte in littekela... Hastea dok kontue. Batzuk besten arrimoan, gainerako grupoak in duen bezelaxe... Gaie bazeok nahikoa. Sue biztea falta dok.



MUSUNZAR
OSTATUA
JATETXEA
Elbarren kalea, 14
Tel.: 948 51 06 07 - 948 51 04 75
LEITZA (Nafarroa)

HERRIKO TABERNA
Torraa
Euskal presoak etxera!
Tel.: 948 61 09 09

BIKOITZ taberna

PINTXOAK • OTARTEKOAK • PASTELAK • TARTAK
Enkarguak ere hartzen ditugu

Elbarren, 16 • Tel.: 948 51 00 72 • LEITZA

Alfabeto deserosoa

Aurrean duzuna, irakurle, deseroso izateko asmoarekin egindako alfabetotxoa duzu. Deserosoa kritikoa delako, eta norberaren kontzientzian pixka bat eragiteko asmoarekin egin dugulako. Alegia, irakurtzen duenak bere buruari aplikatzea nahi genuke, guk geure buruari aplikatzeko ahalegina egin dugun moduan. Leitzan pentsatuz egina da, eta batez ere herrian eta herriarentzat lan egiteko garaian sortzen diren zailtasunetan eta arazoetan pentsatuz.

a itzakia: gure bizitzan zehar askotan erabiltzen dugun errekurtoa. Gizakiok, ez konprometitzea eta ez bustitzeko era guztietako aitzakiak asmatzeko gai gara. Batzuei kontzientzia kargua eta azalaren gorritzea eragiten die, beste batzuei, berriz, ezta horren aztarnarik ttikiena ere.

b oluntario edo bolondresa: ordainik gabe laguntzeko prest egoten dena. Behar-beharrezkoa izan arren, gure artean gero eta eskasagoa den espezia.

d enbora: dirudienez, esistitzen ez den zerbait, behar izaten denean inork ez baitu izaten. «Ez dut astirik» da gaur egun barra-barra erabiltzen dugun aitzakiarik ohikoena. Normalean, gainera, oso gutxitan izaten da egia. «Ez dut «horretarako» astirik, «ez dut gogorik», «nire denbora beste gauza batzuetan eman nahi dut»... eta gisakoak erantzun egokiagoak dira, egiazkoagoak, eta errespetagarriak gainera. Baina «ez dut astirik» esatea, batez beste telebista ikusten egunero 3 ordu eta erdi ematen ditugula jakinda...

e goismoa: nork berea bakarrik begiratzea, besteena deustarako kontuan izan gabe. Egiten edo antolatzen diren gauzez disfrutatuta baina inoiz laguntzeko prest ez dagoenaren jarrera, adibidez.

g ogoa: lan egiteko gogo ezinbestekoa da herri bati bizitasuna emateko. Nola izan liteke batzuk deustarako gogorik ez izatea, deustan parte hartzeko gogorik ez izatea?

h arridura: gazteok gaur egun orokorrean dugun jarrera motela eta pasiboa ikusteak sortzen duena. Gazteak, ia-ia definizioz, errebeldea, kritikoa eta mugitua beharko luke izan. Gaur egun, ordea, behar baino lehenago zahartutako eta zakartutako gazteak garelako ematen du sarritan.

i nplikazioa: jarrera koherente baten ondorio zuzena. Zer edo zer egin behar dela pentsatzen baldin badut, edo gauzak gaizki daudela eta aldatu behar direla pentsatzen baldin badut, neronek ere zerbait egin beharko dut, ezta?

j akintsua: besteek egiten dutena kritikatzan du, gauzak nola egin behar diren badaki (batez ere pasa ondoren) baina, arrazoi bat dela edo beste dela, normalean ez du deustan parte hartzen edo laguntzen.

k onpromisoa: gauzak (orokorrean) aurrera ateratzeko behar dena. Norberarekin, lagunekin, familiarekin edo inguru hurbilarekin behar den bezala, herriarekin ere izan beharko genukeena.

m ugitu: biziaren adierazgarri argiena da mugimendua, biziaren seinale garbiena. Herria bizirik nahi badugu, mugitu egin beharko dugu («dugu», eta ez «dute»)

n egatiboa: dena zakar kritikatu, deus proposatu ez eta, gainera, deus egiten ez duena. «Ni kritikoa naiz» dioen pegatina merkea jarri ohi du, behin eta berriz esalditxoa errepikatuko dizu, nahiz eta gutxitan ikusiko duzun bere burua kritikatzan. Jarrera erraza bezain

kaltegarria da. Hutsa, ez du deus aportatzen.

o zpindua: agian alfabeto hau idatzi dugunok erabili dugun doinua. Ezin baita beti gozo-gozo eta molestatzeko asmorik gabe idatzi. Noizean behin astinaldixoren bat ere eman beharra dago. Besteetara eta nork bere buruari, jakina.

p asotismoa: gaitz psikologikoa larria, zoritxarrez oso hedatua. Gauzak diren bezala izanda, hainbeste okerren aurrean, pertsona nola izan liteke «pasota»?

s aiatzeta: gauzak ongi edo gaizki egin daitezke, baina saiatu gabe ez dago deustan aurreraterik. Hori gutxienez egin beharko da, ba! Saiatu ondoren egiten ditugu kritikak, eta ongi etorriak izanen dira gainera, hurrengoan hobetzeko balioko baitute. Baina gauzak egiten saiatu gabe alperrik izanen da beste guztia.

t elebista: txar ikaragarria omen da programazioa, oro har, besterik ez baita entzuten. Hala ere, batez beste egunero 3 ordu eta erdi telebista aurrean! Denbora horren laurdena herrian antolatzen diren gauzetan emanen bage-nu, ederki nabaritutako luke Leitzak!

u tzikeria: dena besteek egiten dutela ikusi eta onartzen dutenen jarrera

z orionak: herriko gauzetan, deustan intereserako diren gauzetan, inplikatzan eta bustitzen den jendea zor dioguna: «zorionak». Modu askotan inplikatu eta busti daiteke, pentsamolde eta ideologia ezberdinetatik, intentsitate eta maila ezberdinetan, baina trukean deus eskatu gabe konprometitzea eskertzeko modukoa da, batez ere indibidualismoa eta norberekeria gailentzen ari den garai honetan.

Ezetz asmatu

Aurreko alekoa oso erraza omen zen batzuentzat. Bazen, hala ere, argazkitan bere ama ezagutu ez zuenik ere. Tira, oraingoak ere ez dira batere zailak, baina seguru batzuk lanak izanen dituztela bertan ageri direnak nor diren asmatzeko. Ah! Ez du balio ondokoari galdetzeak. Ez behintzat zerorrek asmatzen dezente ahalegindu gabe.



Pertsonai izkutua

Nor da? Norena ote da begirada hori? Eta sudur hori? Beti fisonomista bikaina zarela esan izan duzun horrek, lehendabizikoan asmatu al duzu? Ez dizugu saririk emanen asmatzeagatik, baina zure lagunak baino azkarragoa izan bazara gutxienez horretaz presumitzeko aukera izanen duzu.



Gaztañaga

TABERNA

Otartekoak, pintxo beroak,
kaxuelak

Tel.: 948 61 07 08

SAGASTI

TABERNA ETA JATETXEA

Gosariak, kaxuelak, ogitartekoak
Bazkariak eta afariak

Tel.: 948 61 06 37 - LEITZA

l e i
t z a
r r a

TABERNA

Huarte Gotzaia 19
Tel.: 948 51 03 52
LEITZA

Harremanak

sexua, sexu-harremanak, bikoteak, hirukoteak, neskak, mutilak, topikoak, ezintasunak...

Gai interesgarria, inondik ere. Harremanak era askotakoak izan litezke, lagunartekoak, lanekoak, senitartekoak, maitasunezkoak... Gaurko mahai-inguruan gaia zer edo zer murriztu dugu, gainerakoan zabalegia baita, eta bikote barruko (edo hirukote, laukote...) harremanez hitz egin dugu bost leitzar gazte hauekin. Harremanaren osagai ezberdinak aztertzen saiatu gara, sexua, maitasuna,... denborak eta aldizkari honen espazioak jartzen dizkiguten mugen barruan. Beti bezala, hausnarketarako eta eztabaida sortzeko balio baldin badu, ontzat emanen dugu ahalegina.



■ **Bikotea da gaur egun harreman mota ohikoena. Hau beti horrela izan da? Aldatu daiteke?**

■ Paleolitiko garaian-edo beste harreman batzuk bazirela esatea da, ezta? Taldeetan bezala ibiltzen zirela.

■ Eta oraindik beste kultura askotan ere bai.

■ Euskal Herrian, edo gure inguruan, Kristautasuna etorri arte beste modu batzuk izanzen ziren.

■ Baina beti izanen ziren gizonezkoak aukera horiek zituztenak.

■ Edo beharbada emakumezkoek ere bai.

■ Agian orduan ez zioten garrantziarik ematen bikote edo hirukotea izateari. Bakarrik, adibidez, umeak izateari. Orduan ez zuen bikotea izan beharrik.

■ Nik zaila ikusten dut gaur egun hirukote bat. Orain, posibilitatea, hemendik aurrera? Noizbait gertatzea edo aldatzea? Posiblea, bai.

■ Nik ez dut uste.

■ Alde batetik positiboa izanen zen hori aldatzea.

■ Ezin dira bideak itxi.

■ Baina jada txikitatik itxiak dituzu. Orain familiaren ingurukoa aldatu da, dibortzioak direla, edo elkartu eta uztea... baina aldatzeko aukera...

■ Ez, aukerarik ez dago. Gaur egun, gainera, alderantziz, bikoteak ere nahiko zailantzan daude. Beraz, hirukoteak, ez dakit...

■ Agian hirukotea sendoagoa da. Agian gehiago lantzen duzu harremana. Nik uste dut askotan segurtasun horretan lasaitzen garela eta askotan deskuidatzen ditugula gure harremanak. Gaur egun bikote harremana daramagu denok, ezkondata edo ez ezkondata, baina gehiegi erlaxatzen gara, bikote finko bat daukagunean. Ez da batere ona.

■ Baina gauza da mundu honetan, gizarte honetan, bide bat eraman behar dugula.

■ Nik ez nuke nahi harreman bat beste bi-

rekin, baina ez litzateke hain gaizki egonen.

■ Eta zergatik ez duzu nahi?

■ Ez erotzeagatik. Batekin txoratzen bazara, bikin gehiago.

■ Edo askoz hobeki pasatuko zenuke.

■ Edo agian eramanen zenuke harreman askoz libreagoa.

■ Nik uste dut posibleak direla hirukoteak.

■ Hiruek berdin-berdin pentsatzen badute.

■ Bai, adostasuna baldin badago.

■ Bai, baina hemen teoria asko dago, eta praktikan? Zer gertatzen da?

■ **Leitzan, gaur bertan, hirukote batek funtzionatu dezake?**

■ Hirukoteak agian izanen dira Leitzan. Baina herriak onartuta?

■ Niri zaila iruditzen zait hirukote batek luze irautea.

- Bai, hor dago koxka, irautea oso zaila da.
- Bai, esperientzia moduan edo.
- Agian laukotea da posibleagoa.
- Bai, nik uste dut denbora baterako posible dela, zure bizitzako garai batean.
- Baina gaizki pasatzen duzu, daukagun kulturarengatik-edo, azkenean gaizki sentitzen zara.
- Eta nik uste dut denborarekin bat edo bestea aukeratu behar duzula, ezin dela bestela hori eraman, ez psikologikoki, edo astirik ez duzulako.
- Agian dugun kulturarengatik. Esaten dizute ezin dituzula bi maitatu, ezin dela bikin ibili.
- Niri ezinezkoa gertatzen zait bi pertsona ezberdinez enamoratzea.
- Baina agian momentu batean baietz uste duzu. Edo momentu batean ezin duzu aukeratu.
- Harreman asko daukazu: lagunak, lanekoak... eta beti bizi behar duzu pertsona berberarekin? Zergatik? Horrela planteatua dagoelako?
- **Beste aukera bat da bikote «normala» osatzea, maitasunean oinarritua nahi bada, baina sexu harremanetan libre jokatzeko. Hori bide-argarria da?**
- Bai, hori gertatzen da, eta posible da.
- Biak ados baldin badaude bai.
- Baina denborarekin... Zaila da.
- Zuk asko maite duzun bikotekidea baldin badaukazu gertatzen da umeari jostailuarekin gertatzen zaiona: beste norbaitek hartzen badizu galtzeko beldurra daukazu.
- Baina nor da hor berekoa edo egoista?.
- Denak izaten gara.
- Denak izaten dugu segurtasun falta hori.
- Zure bikotekidea beste batekin baldin badago, beti daukazu beldur hori.
- Nire ustez ez litzateke beldur hori egon behar. Zuk pertsona bat benetan maite baduzu bere osotasunean maite duzu, eta pertsona horrek erabakitzen badu noizean behin... galtzeko beldurra duzu, baina...
- **Eta Leitzako jendea prest dago horrelako harremanak onartzeko?**
- Ez Leitzan ezta hiri batean ere.
- Denak gara oso liberalak eta oso irekiak baina...
- Nire ustez hori gertatzen da sexua ez dagoelako oso onartua.
- Eta gazteak, prestatuagoak al daude hori onartzeko?



- Gazte asko oso kontserbadoreak dira.
- Nire ustez ezberdindu behar da sexua eta bikotea, maitasuna eta sexua, sentimenduak eta erakarpen fisikoa.
- Eduki ditzakezu bi lagun oso onak eta beraiekin sexu harremanak izan, bikote kontsideratu gabe.
- Baina triste da horrela banatzea. Nik uste dut norbait maite baduzu horrekin batera doala sexua.
- Esan nahi nuen harreman batzuk sexu hutsagatik izanen direla eta beste batzuk maitasunean oinarrituta.
- Baina nik uste dut gaur egun Leitzan norbaitekin sexu harreman hutsa izatea zaila dela.
- Ez da hain zaila...
- Baina beti sentitu behar duzu zerbait pertsona horrekiko. Zure gustukoa ez bada, oso ederra izanda ere, ez zara berarekin oheratuko.
- Baina afektoaren beharrik gabe, beroaldi hutsa ere izan liteke.
- Horrelakoetan normalean biharamunean damutu egiten zara.
- Zergatik damutu behar duzu?
- Nik uste dut harreman guztietan izaten dela momentu bat, fase bat, sexu grina fuerteena dena, agintzen duena; burua galtzen duzu eta hori da erakusten duena pertsona nolakoa den, edo nola ibili izan den mundu honetan. Eta gero harremana formalizatzea erabaki hotzaxeagoa da, arrazionalagoa. Gizarte honetako balore-

«Harreman asko daukazu: lagunak, lanekoak... eta beti bizi behar duzu pertsona berberarekin? Zergatik? Horrela planteatua dagoelako?»

«Kristautasunak eman digun herentzia: familia eredu bat, gizarte eredu, dena bideratua, bikotea, seme-alabak... Eta gure frustraziotan sortzen dira sexu harreman horiek, rolo horiek, asteburuko 'rollitoa', halako bolada batean beste batekin ibiltzea... Eta horiek dira agian zinez gure sena edo gure nortasuna erakusten dutenak, besteak dira gizarteak emandako bideak. Eta hauek barrukoak, pertsonalak.»

en ariora familia bat osatu, pisua lortu, eta gizartearen aurrean erakustea norbait bazarela

■ **Bikotekidea bilatzen denean, zer da bilatzen dena: sexua, umeak, bakarrik ez egotea, egonkortasuna...?**

■ Nik uste dut dena dela. Pertsona horrekin gustura sentitzen zara, edo sexualki, edo juergan...

■ Hasieran ez duzu pentsatzen ezkontzan, umetan... Zuk hondartzara joan nahi duzu, edo mendira, eta iupi! eta...

■ Baina lehendabiziko momentuan sexuak erakartzen zaitu

■ **Baina askotan jendeak, bikotekide nor izanen duen jakin gabe, badaki bikotea osatu nahi duela, nor izanen den jakin gabe. Norbait agertuko da. Hori izan liteke hutsune bat duelako. Zer da bilatzen duena?**

Harremanak

«Baina agian benetako erokeria da gizarteak esaten diguna egitea eta ez guk egin nahi duguna, edo ateratzen zaiguna.»

- Asko bakartasunaren beldur dira.
- Bizi garen gizartean bikoteak daudela gertatzen da. Bikoterik ez badaukazu mutilzaharra edo neskazaharra zara.
- Kristautasunak eman digun herentzia: familia eredu bat, gizarte eredu, dena bideratua, bikotea, seme-alabak... Eta gure frustraziotan sortzen dira sexu harreman horiek, rollo horiek, asteburuko «rollitoa», halako bolada batean beste batekin ibiltzea... Eta horiek dira agian zinez gure sena edo gure nortasuna erakusten dutenak, besteak dira gizarteak emandako bideak. Eta hauek barrukoak, pertsonalak.
- Lehen esan duguna, historiaurrean ez zegoen bikoterik. Baina gero sentimentuak arrazionalizatu egin ziren.
- Gauza guztien gainetik, jende pila bat erortzen da horretan, eta izaten da bolada bat bere burua galtzen duena raso. Eta paso egiten da bai familiaz eta bai beste guztiaz. Baina gero berriz, denborarekin, pixka bat hozten da eta «bide onera» itzultzen gara, gizartearen bidera.
- Egia da, alde batetik dago sartu digutena eta beste aldetik gure haur txiki horrek esaten diguna, nolakoak garen eta horren aurka joan nahia. «Erokeriak» egiten ditugu eta gero berriz «bide onera» itzuli.
- Baina agian benetako erokeria da gizarteak esaten diguna egitea eta ez guk egin nahi duguna, edo ateratzen zaiguna.
- Bai, baina esan nahi dut erreka baten modukoa dela, eta denok hor goaz, eta noizean behin ihes egiten dugu.
- Zaila baita, eta gauza zailak sufrimendua eskatzen dute. Eta azkenean sufrimendutik ihesiz agian gehiago sufritzen duzu, baina ez dakit... Hasieran behintzat errazbidera jotzen duzu.
- Pakea eta lasai samar bizitzea bilatzen da.
- **Normalean bikotekidearekin bilatzen dena aurkitzen ote da? Edo gauzak idealizatzen ditugu eta gero gauzak ez dira hasieran espero dugun bezala?**
- Nik uste dut ideala aurkitzen zaila izaten dela. Norberaren idealaren ariora izaten da, nolako den, zein ezaugarri jaritzen zaion. Oso gutxi iritsiko dira ideal horretara.

- Nik uste dut ezinezkoa dela ideala lortzea, imaginarioa dela % 100ean.
- Eta txarra da ideal bat izatea, edo pentsatzea nire bizitzako neska edo mutila aurkituko dudala.
- Bai, idealizatzea oso txarra da, sekulako kolpeak hartzen direlako, eta oso gaizki pasatzen da.
- Baina ideala baduzu, beti idealizatzen duzu.
- Ideal bat edukitzea baino gehiago, hau nahi duzula pentsatzea baino gehiago, agian da hau ez dut nahi, edo hau eta hau ezta ere. Zehatz-mehatz ez dakizu zer nahi duzun. Badakizu gutxi gorabehera nondik edo...
- Gutxienez zer ez duzun nahi badakizu, ez?
- Eta pertsona bat ezagutzen duzunean ez duzu pertsona hori ideal horretara moldatzen, alderantziz baizik. Eta pertsona hori maite baduzu, ideala irudituko zaizu.
- Eta zuk aldatzen joan behar duzu, eta moldatzen ere bai. Eta joko hori interesgarria eta aberasgarria izan daiteke.
- Edo frustragarria ere bai, askotan.
- Baina harreman batek zerbait polita baldin badu, horixe da, eboluzionatzeko

«Baina harreman batek zerbait polita baldin badu, horixe da, eboluzionatzeko eta inprobisatzeko gaitasuna izatea; hori gabe, bai lagunaren artean, bikotekideen artean edo hirukotekideen artean, nik uste dut desagertu egiten dela.»



- eta inprobisatzeko gaitasuna izatea; hori gabe, bai lagunaren artean, bikotekideen artean edo hirukotekideen artean, nik uste dut desagertu egiten dela.
- Hori oso ongi dago bien aldetik berdin denean, baina askotan eta gehienetan bietako batek gehiago eman beharra dauka, eta momentu batean pentsatu dezakezu noraino merezi duen beti zuk amore ematea. Oso zaila da biek berdin-berdin ematea. Beti batek gehiago sufritzen du.
- **Noraino da askatasunari uko egitea bikote bat osatzea (edo hirukotea...)? Askatasuna galtzen da?**
- Zuk nahi duzuneraino.
- Zerorrek jartzen duzu muga.
- Askatasuna galtzen da baina nahi duzula.
- Bai, galtzen da, pixka bat.
- Pixka bat ez, asko galtzen da.
- Baina edozein harremanetan galtzen da askatasuna, bestela bakarrik ibiliko zinateke.
- Normalean, norbaitekin harremanetan hasten bazara, gustuak-eta berdintsuak izaten dira. Niri poteatzea-eta gustatzen bazait, ez naiz enrollatuko egun osoan mendian dabilen norbaitekin, edo ohitura erabat ezberdinak dituen batekin. Eta hala gertatzen bada, normalean harremanak huts egiten du. Normalean gustu berdintsuko bikoteak osatzen dira.
- **Eta den-dena konpartitzea ez al da gehiegizkoa?**
- Bai, baina uste dut inoiz ez duzula dena konpartitzen. Beti zure esparrua izan behar duzu eta berak berea, nahiz eta ongi moldatu.
- Bakoitzak bere gauzak eta bere gustuak izan behar ditu, eta beste gauza batzuk elkarrekin egin.
- Agian erantzun orokorrak bilatzen ari



gara eta horrek seguraski ez du balio. Babiliteke bikote batentzat balio duenak beste bikote bati balio ez izatea. Bikote bat zoriontsu izan liteke eguneko 24 orduak elkarrengandik banatu gabe eta ondoko bikotea, berriz, ito eginen litzateke. Ez dago denontzat balio duen formula perfekturik.

■ **Sexu harremana, ezinbesteko osagaia al da harreman batean?**

■ Oso elementu garrantzitsua da, beste gauza batzuekin batera. Bolada batean izanen da funtsezkoagoa, eta beste batzuetan gutxiago.

■ Nik uste sexurik gabe harreman sakinak izan daitezkeela.

■ Bai, baina harreman osoa?

■ Adibidez, pertsona batek, gaitzaren bat dela-edo, fisikoki ezin badu sexu harremanik izan, horregatik funtzionatu dezake harremanak. Baina orokorrean, arazorik ez badago, arraro samarra iruditzen zait.

■ Baina gertatu liteke batek ezin duela sexu harremanik izan eta bere bikotekideak hutsune bat sentitzea, behar bat asetu gabe gelditzen zaiola. Eta agian beste zerbait beharko luke, beste pertsona batekin harreman bat izan, eta hori ere «negoziatu» daiteke, eta besteak onartu.

■ Eta ulertzekoa izanen litzateke.

■ Egoera normaletan beharrezkoa da sexu harremana, nahiz eta gertatu litekeen sexurik gabe ere harremanari eustea.

■ Gertatzen zaigun sentimenturik fuertena da maitasuna eta sexua batean sentitzea.

■ Hemen mundu guztia ostiaka ibiltzen da sexua dela eta ez dela, harremanak direla eta ez direla, orduan, sexurik gabe, baten bat izanen da baina...

■ **Leitzan herriak bikote homosexual bat onartuko al luke?**

■ Ez, oraindik ez.

■ Eta jende gazteak?

«(sexu harremana) oso elementu garrantzitsua da, beste gauza batzuekin batera. Bolada batean izanen da funtsezkoagoa, eta beste batzuetan gutxiago.»

■ Nik uste dut jende gazteak agian baietz.

■ Jende gazteak, batzuk bai eta beste batzuk ez. Onartu? Inork ez luke esanen «bua, ez dakit zer», inor ez litzateke altxatuko horren kontra deus esatera, baina zer sentituko zuen barrutik, zer pentsatuko zuen edo nola begiratu zion... Ni ez nintzateke ausartuko, bikotekide homosexual batekin ibiliko banintz, herritik lasa-lasai berarekin muxuka ibiltzera.

■ Nik uste dut arazoa norberarena dela,

bikotearena. Leitzan jendea zer hasiko da? Harri tiraka, mesprezu bat eginez, gaizki hitz eginez?

■ Ez, hori ez, baina seguru egonen zela herri osoan zurrumurruren bat...

■ Herri txikitot esamesaka eta gaizki esaka denak aritzen gara elkarretaz.

■ Leitzan bikote «arrunt» bat, heterosexuala, ikusten baldin bada, inor ez da harrituko. Baina bikote homosexual bat agertzen baldin bada jendea gutxienez harritu eginen da, beste batzuk gaizki ikusi, kritikatu...

■ Baina ez bakarrik bikote homosexualen kasuan, baita forma-

mala ez den bikotearen kasuan ere. Hemen bikoteak oso finkatuak daude, ezagutzen ditugu betidanik. Eta bat asteburu batean batekin agertzen bada eta hurrengoan beste batekin..., iskanbila sortzen du.

■ Leitzan, 3.000 lagun inguruko herria, eta ez dago bikote homosexual bakar bat ere publikoki aitortua. Existitzen ez den errealitatea ematen du, baina ezin liteke; hor dago, baina izkutuan, ez da azaltzen.

■ Baina Leitzan agertzea beste toki askotan baino zailagoa da. Leitzan beti izan da Rambo herri bat: harrijasotzaileak, ez dakit zer... balore guztiak dira denak ostian ranbilloak izateko. Pertsona bat normaltxeagoa baldin bada marginatuta dago 12 urtetatik, baztertua, mari gixona, mari ez dakit zer, marikon... Leitzan herri hau pasada bat da gauza horietan, eta 20 urteko gazte hauek igual-igual ibiltzen dira, eta hemen bakarrik funtzionatzen du futboltxapelketak eta indarrak, eta indar erakustaldiak eta kitto.

■ Oso konforme nago horretan. Hemen indarra, sasoi... balore bat da, asko estimatzen dena, beste batzuk berriz...

■ Ikusten da eskolatan-eta, umeak, ez dela deus aldatu horretan.

■ Eta mutil bat beti neskekin ibiltzen bada, «marikita»...

■ **Sexuari buruz dakiguna, non ikasten da? Etxean, kalean, eskolan?**

■ Kalean.

■ Esperientziaren bitartez. Eskolan ez zaigu gehiegi informatu. Etxean batzuei bai eta beste batzuei ez.

■ Esperientzia bakoitza ezberdina da. Segun bikotea edo, lehen aipatu duguna, hirukotea, laukotea... Teoriak esaten digu gauza bat, eta esperientziak edo prakti-

LIZARRAGA

Harategia

Tel.: 948 51 02 83



ADUR

- Otartekoa ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak
- Olagarroa - Grabak
- Ziztorra sagardotan

Elbarren, 16 - Leitzan
Tel.: 948 61 08 64

Harremanak

«Leitza, 3.000 lagun inguruko herria, eta ez dago bikote homosexual bakar bat ere publikoki aitortua. Existitzen ez den errealitatea ematen du, baina ezin liteke; hor dago, baina izkutuan, ez da azaltzen.»

kak beste bat.

■ Baina orain aukerak dituzu elkarrizketak entzuteko, bai telebistan, bai irrastian, gehiago aditzen da.

■ Bai, informazioa behar da.

■ Baina praktikan zer gertatzen da? Gauza guztiekin bezala. Zu ingeniaria zara, ez dakit zer ikasi duzu, lanean hasten zara eta.: «hara, hau ez da horrela, makina hau ez zen horrela»... Pertsonarekin ere berdintsu da. Gustuak, sentsazioak eta abar ezberdinak dira. Ustez mundu guztiarentzat estandarizatua dagoen plazerra ez dugu denok berdin sentitzen. Hori ere ikasiz joan behar da.

■ Baina beste gauza batzuk, kondoiaren erabilera esaterako, komeni da esperientzia izan baino lehen jakitea. Hori etxean edo eskolan erakutsi daiteke.

■ Baina eskolan, adibidez, erakusten dituzena da kondoia beti jarri behar dela, ez kondoia nola jarri. Eskolan sexualitatea eman dugunean beti izan da emakumearen hilerokoaren faseak, antikontzeptibokak nolakoak diren eta beste deus gutxi.

■ Orain gehiago ere ematen da, baina eskolan ez da ikasten.

■ Informazioa izatea ongi dago. Gero oso garrantzitsua izanen da esperientziatik ikastea, eta esperientziarekin aluzinatzea, gozatzea. Baina informazioa aurretik baduzu, aurretik gutxienez ezagutza bat badaukazu, oinarritzko zerbait, gauzak hobeki bideratzeko. Informazioa daukazunean gauzak askoz hobeki ateratzen dira.

■ **Bikoteari, edo hirukoteari..., den-dena esan behar al zaio? Edo bakoitzak izan behar du bere intimitatea, bere sekretuak?**

■ Ez, ez zaio dena esan behar.

■ Nik uste dut, gainera, hori ez dela existitzen, erabateko konfiantza. Zaila da.

■ Beti gordetzen da zerbait.

■ Beti esaten duzu, bikote guztien sekretua konfiantza da, baina...

■ Nik entzun izan dut «gizonei, erdia kontatu behar zaio».

■ Nik uste dut geure buruari ere ez diogu-

la egia esaten.

■ Baina geure burua nekez engainatuko dugu, besteak engainatzea, berriz errazagoa da.

■ **Inertziatz, uzteko beldurrez-edo, harremanari eusten dioten bikote asko al dago?**

■ Bai, ohituragatik.

■ Eta erosotasunagatik.

■ 4tik 3 izanen dira.

■ Gaztetik norbaitekin hasi bazara, eta ohitu bazara, beti hor dagoela jakinda, gehiago mantentzen da.

■ Edo ezkondata urte asko egin ondoren, askok ez dute pentsatu ere egiten. Bikote asko banatu egingen lirake baina...

■ Hala ere, nik uste dut aurreratuz joan dela, lehen bikote askoz gehiago mententzen zen, orain dibortzioak gero eta gehiago dira.

■ Oso ezberdina da gartetan dibortziaztea edo 60 urte dituzunean.

Adin horretan esaten da: «nora noa? Zer egin behar dut?». Zailantza horiek, beldur horrek karga handia dute. Batez ere emakumeen artean.

■ Bai, orain arte emakumeak ez du bizibiderik izan, dirurik izan, eta hortxe mantendu dira eta kitto, ha-

rremanari eutsi diote besterik gabe, seme-alabengan babestu dute beren burua eta kitto. Oraindik ere asko dira horrelakoak.

■ Eta hirukoteen kontua ere hor sartu liteke. Ez duzu zure bikotea utzi nahi, baina azken finean beste gauza batzuk behar dituzu eta beste pertsona baten bidez bilatzen dituzu.

■ **Nola zaintzen da harreman bat, nola elikatzen da? Zein da ongi funtzionatzeko formula? Ba ote dago?**

■ Nik uste dut politena dela egunero-edo, maiz samar behintzat, detailtxoak, puntazoak izatea. Edozein txorrada, izan daiteke eskutitz bat idaztea, ohartxo bat, gosaria prestatzea, lore bat eramatea, edozein gauza. Pertsona harrituaztea. Azken batean, 5 urte egin dituzu pertsona batekin, edo 10, pertsona horrek ez bazaitu harritzen, ez badizu deus ematen, egunero horrela pertsona batekin egoteko... Amarekin ere egon zaitezke, edo aitarekin. Eta sexu harremanak izateko ligeak ere izaten dira.

■ Errutina haustea, azken batean.

■ Bai, egunero, txorradatxoak.

■ Jode, egunero?

■ Ez, bueno, egunero ez, baina maiz samar.

■ Nik ez dut txorradatxo asko egiten, eta ez naiz oso aldekoa. Nire ustez hitz egin egin behar da, sentitzen duzuna adierazi, askotan guretzat gordetzen ditugunak gehiagotan bota.

■ Baina batek ez du bestea kentzen.

■ Bai, denak dira garrantzitsuak, pizgarri horri ere eusteko.

■ Eta sentitzen dena adierazi, baina bi aldeetatik.

■ Eta denbora gehiegi pasatzen utzi gabe.

■ Eta ez bakarrik gauza txarrak, gauza onak ere bai.

Gaiak, dudik ez dena, ordutarako emanen liguke. Aldizkariak ez, ordea, eta horretantxe utzi beharko dugu. Irakurritako ideia batzuekin ados egonen zara, beste batzuekin ez. Orain zure lana da, nahi izanez gero, hemen esandakoaz pentsatzea edo zure inguruan eztabaidatzea. Beste gabe, on egin.

BULDAIN

agentzia inbiliaria

Amazabal 37 (eskola ondoan)

LEITZA (Nafarroa)

Tel.: 948 510534 / 649 47 66 15

Arakindegia
Jatetxea

Tel.: 948 51 00 52

Benetako leitzarra al zara?

Test hau bete ondoren, benetako leitzarra zaren jakinen duzu. Marmari taldekoek batzorde zientifiko bati laguntza eskatu diogu eta zientzialari hauen aholkuak entzun ondoren, «benetan» leitzarra izatea zer den ikasi dugu. Zeure buruaz zalantzarik izanez gero, bete ezazu testa eta uxatu zalantzak betiko!

1.- Leitzako pestetan:

- A) blusa beltza lehendabiziko egunean jantzi eta hurrengoetan ahal denarekin moldatzen zara
- B) blusa bera erabiltzen duzu egunero, zikin ibiltzeko beldurrik gabe
- C) egunero-egunero blusa garbi-garbiarekin ateratzen zara
- D) ez daukazu blusarik

2.- Leitzako ingurutxoak:

- A) beti dantzatzeko duzu, eta beti oilo ipurdia jartzen zaizu
- B) aspergarria iruditzen zaizu
- C) ingurutxoak zer den ez dakizu
- D) emozioak dantzatzea galeratzen dizu



3.- Leitzako baserriak:

- A) egon badaudela badakizu, baina besterik ez
- B) 40-60 inguru baserriren izenak esan ditzakezu
- C) 10-15 inguru baserriren izenak esan ditzakezu
- D) baserri guzti-guztien izenak dakizkizu, baita bertan bizi diren aiton-amonenak ere

4.- Zure lehendabiziko 10 abizenetan:

- A) Perurena, Alduntzin, Zabaleta, Azpiroz, Sagastibeltza eta Zestau abizenak dituzu
- B) Perurena, Zabaleta, Sagastibeltza eta Zestau abizenak dituzu
- C) Sagastibeltza eta Zestau abizenak dituzu
- D) «a» aukerako 6 abizenetatik bakar bat ere ez duzu

5.- Zure guraso eta aiton-amonak

- A) aita edo ama, bietako bat, Leitzan jaioa duzu
- B) aita eta ama, biak, Leitzan jaiokak dituzu, baina aiton-amonak ez
- C) aita eta ama, biak, eta baita aiton-amonak ere, Leitzan jaiokak dituzu
- D) ez gurasoak, ez aiton-amonak, ezta zu ere, ez zarete Leitzan jaiokak

6.- Leitzaundi, Iruñen pare,...

- A) esaeraren bukaera badakizu
- B) esaeraren bukaera ez dakizu

7.- Kanpotarrekin edo ezegzagunekin hitz egitean

- A) «det», «jun gea», «dute»... esaten duzu
- B) «dot», «joan gaa», «due»... esaten duzu



8.- Pestetan eta inauterietan

- A) oporrak hartu eta kanpora joaten zara
- B) oporrak hartzen dituzu egunero parrandan ibiltzeko
- C) oporrik hartu gabe, ahal den gisan aurre egiten diozu parrandari eta bestondoari
- D) ez zara ia etxetik ateratzen

9.- Norbait ezagutzen duzunean

- A) 10 minutu itxoin dezakezu leitzarra zarela esan gabe
- B) ez badizute galdetzen, ez duzu leitzarra zarela esaten
- C) beste deus baino lehen, leitzarra zarela esaten diozu

10.- Zure ustez Leitzako pestak

- A) munduan diren onenak dira, zalantzarik gabe
- B) Sanferminen eta Rio de Janeiroko inauterien parekoak dira
- C) baliteke munduan hoberik egotea, baina zuk ez dakizu
- D) ezagutzen dituzu Leitzakoak baino pesta hobeak

Erantzunen puntuazioa honakoa duzu:

- | | | | | |
|-----|------|------|------|------|
| 1. | a) 2 | b) 3 | c) 4 | d) 1 |
| 2. | a) 3 | b) 2 | c) 1 | d) 4 |
| 3. | a) 1 | b) 3 | c) 2 | d) 4 |
| 4. | a) 4 | b) 3 | c) 2 | d) 1 |
| 5. | a) 2 | b) 3 | c) 4 | d) 1 |
| 6. | a) 4 | b) 2 | | |
| 7. | a) 1 | b) 4 | | |
| 8. | a) 1 | b) 4 | c) 3 | d) 2 |
| 9. | a) 2 | b) 3 | c) 4 | |
| 10. | a) 4 | b) 3 | c) 2 | d) 1 |

a).- 40-34 puntu lortu badituzu:

benetako leitzarra zara. Leitzako esentzia guztien jabe zara.

b).- 33-25 puntu lortu badituzu:

tira, nahikoa leitzarra zara, baina ez bene-benetakoa. Pixka bat ahaleginduta, agian, benetako leitzarra izatera iritsiko zara. Blusa berriak erosita, hizkera gehixeago zainduz edo baserri guztien izenak ikasita, akaso... Saia zaitetz!

d).- 24-17 puntu lortu badituzu:

zuri dezente falta zaizu benetako leitzarra izateko. Hala ere, asko-asko saiatuta baliteke hurbiltzea. Proba ezazu, nolana ere, bene-benetan beste nonbaitekoa ere izan ote zaitezkeen, agian merkexego aterako zaizu-eta.

e).- 16-10 puntu lortu badituzu:

test honen galderei erantzun diezu? Zer espero zenuen, bada? ez zenekien ez zarela inoiz benetako leitzarra izanen? Hala ere, seguru asko, zuri bost axola, ezta? Ziur gaude horregatik lasai-lasai biziko zarela.

HIZKUNTZAREKIN JOSTATZEN

Euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, ez dugu denok eta beti berdin hitz egiten. Egoera batzuetan ematen du hizkera-modu bat egokiagoa dela. Edo ez? Zuk zer uste duzu?. Adibidez, egoera hauetan, zuk nola hitz eginen zenuke?

Gaztetxe batera joan zara hitzaldia ematera:

a) Aupa. Leitzetik heldu naiz, ta hango kontu batzuk argitzeko asmoakin etorri naiz. Ahal bada, gehiegi luzatu gabe. Nere ustez, gauzek ez daude oain oso ongi...

b) Arratsaldeon, jaun-andreok. Dakike-zuenez, Leitzatik natorkizue hango egoerari buruzko hainbat argibide ematera, zuen jakinmina asetzeko asmoz. Ahal baledi, ez nuke luzeegi jardun nahi. Ene uste apal bezain xumean, une honetantxe egoera ez-optimizat definitzeko genezake...

c) Aupa, peña. Bakizue Leitzetik etorri naizela, hango mobidak esplikatzea. Krixton txapa sartu gabe. Nik uste dot gauzek oain txungo daudela,...

Zure gurasoei dirua eskatu behar diezu, musika-ekipo berria erosten laguntzeko.

a) Guraso agurgarriak. Jakinarazi nahi dizuet musika-ekipo berria erostea dudala xede. Beraz, zilegi bekit zuen ezinbesteko laguntza eskatzea, gainerakoan nekez egin ahal izanen baitiot aurre erronka horri

b) Eh, viejillos. Musike-ekipo berrie erosi nahi dot. Zuk ez bazatea enrrollatzen, mal rollo. Osea, zun pasta beharko dotela.

c) Ama, atte. Musike-ekipo berrie erosteko asmoa dauket. Zun laguntza beharko dot, gañekoan ezin dot erosi.

Zure lagun batekin elkartu, eta bezperako kontuez hitz egiten hasi zarete:

a) Tio, kolgatue hao. Kontzertu bet de la ostia, jendea a mogollón, ta hi krixton ziegoakin lo geldittu.

b) Motel, hi ez hao burutik sano. Sekuleko kontzertue, sekuleko jende pille, ta hi krixton ahuntzekin lo geldittu.

c) Adiskidea, ez haiz hire buruaren jabe. Aparteko musika-emanaldia, jendetza itzela, eta hi, ikaragarritzko mozkorraldiaren eraginpean, Morfeoren besoetan erori.

Saiatu al zara inoiz izenen edo hitzen jatorria asmatzen? Ba al dakizu nondik heldu diren tokien edo gauzen izenak? Tira, hemen-txe duzu zure trebetasuna forgatze aukera. Ezkerreko zutabean zenbait herrialderen izena duzu, eta eskuinekoan izen horien azalpena, baina beste orden batean. Ezkerreko izenei eskuineko zutabean dagokien bikotea bilatu behar diezu.



- 1.- GUAIANA
- 2.- ANGOLA
- 3.- INGUTIA
- 4.- GABON

- 5.- YEMEN
- 6.- HOLANDA
- 7.- ARABIA
- 8.- BHUTAN
- 9.- SUITZA
- 10.- PORTUGAL
- 11.- KANADA
- 12.- MAURITANIA
- 13.- FINLANDIA
- 14.- MAZEDONIA

- 15.- BOLI KOSTA
- 16.- BIRMANIA

- A.- Autoritarioen herrialdea
- B.- Gas produzitzaileen herrialdea
- D.- Konformisten herrialdea
- E.- Dena errepikatzen dutenen herrialdea
- F.- Matxisten herrialdea
- G.- Futbolzaleen herrialdea
- H.- Lotien herrialdea
- I.- Enrollatuen herrialdea
- J.- Marrubien lurraldea
- K.- Jende finaren herrialdea
- L.- Frutaren herrialdea
- LL.- Alferren herrialdea
- M.- Idazleen herrialdea
- N.- Galdu diren marinelen herrialdea
- ñ.- Kizkalien eta gaizkiesaleen herrialdea
- P.- Zahartzen ari direnen herrialdea



Gurean gas-ik ez da faltan behintzat

praafff

- SOLUZIOAK:
 1- GUAIANA) • 2- G (AN-GOLA)
 3- LL (N-GUTIA) • 4- H (GABON)
 5- R (Y-EMEN) • 6- D (HOLAN-DA)
 7- F (AR-ABIA) • 8- B (BHUTAN)
 9- U (SU-ITZA) • 10- U (PORTU-GAL)
 11- F (KANA-DA) • 12- J (MAURITANIA)
 13- H (FIN-LANDIA) • 14- J (MAZEDONIA)
 15- M (BOLI KOSTA) • 16- E (BIR-MANIA)

Euskal Herriko Fauna

Euskal Herriko aniztasun biologikoa handia da, Europan gaudela kontuan hartuta. Baina aniztasun hori ez da soilik animalia edo landareena. Gizaki mota ugari ere bada, eta gaur «Euskal Herriko Fauna» horretako ale batzuk aurkeztu nahi dizkizuegu. Espezie nahikoa arruntak dira, hala ere, eta edozein herritan, baita Leitzan ere, aurki ditzakegu.

Euskaltzalis Abertzalis klasikus →

Euskal aberriaren eta gure arbasoen esentziaren bila dabil beti. Sudur konkorra duten aiton-amonek, txistu hotsek eta Benitoren kantek hunkitzen dute.

«Oi ama Eskuuual Heeerrii goooxuua...»



«Bai hunkigarria, ezta? Kanta zoragarria da. Berriz kantatuko dizut»

«Hara! Kartak esaten du duela bi hilabete istripu larri bat izan nuela. Baina ez naiz oroitzen... Kartak ezin du hutsik egin... Ah, bai! Azkazal baten muturra puskatu zitzaidan! Uff! Egia da, istripu larria izan nuen.»



→ Sinisturus exageratus

Gurutzetako kristauek baino fede irmoagoa du. Edozein gauza sinisteko prest dago: errenkarnazioa, nazioarteko izpiritu on eta gaitzoen trafikoa, barneko «ni»ak bi puskatan hautsitako besoa sendatzeko duen gaitasuna...

«7:00etan mendira joanen naiz. 10:00etan pilota. 11:00etan lasterka. Gero luzaketa batzuk egin eta 14:00ak arte eskalatu. 5 minututan yogurt bat bazkalduko dut. 18:00ak arte bizikleta. Gero igeri egin 19:30ak arte, 19.30 etatik 20:30etara pesak, eta beste lasterraldi bat 21:30ak arte. Agobiatu gabe. Platano bat jan eta ohera.»



→ Hiralzabētus obsesibus

Eguneko 24 orduetatik 8 lotan, 8 lanean, 1 jaten eta 14 kirola egiten ematen ditu. Badaki beste gauza batzuetaz ere hitz egiten, beste gauza batzuk egiten, baina ez du nahi.

«Hi, aspertu nauk eta baniak etxera»

«Etxera? Ke guai, tio! Ke flipe!»

Etxera!. Buah! Bueno, tio, aupa, bengal!...

Etxera, Ke flipe! Ke mobida»



→ Enrollatus guai

Bere kodigoak agintzen dionez, gertatzen zaion guztia edo gehiena oso intergarria da. Besteontzat gauza arruntak edo egunerokoak direnak, esperientzia ia-ia mistikoak dira beretzat. Dena da «mobida» bat, dena da «guapo».

«Zergatik ez nintzen 20 urte lehenago jaio?. Horrela ezin dut unibertsorekin eta kosmosarekin bat egin, ezin dut nere burua aurkitu.»

txunda txunda txunda txunda



→ Hippy-yoggis etsitus

Bere zoritxarrerako, Pink Floyd, Janys Joplin edo John Lennonen garaian jaio beharrean, bakallua, La Polla edo Monica Naranjoren garaia egokitu zaio. Mistizismoarentzat aukera gutxi dagoen garai honetan, estetikan oiarritzen da neurri handi batean.

Leitzako idazleen lanak

Atzokoak eta gaurkoak

Leitzan idazle ezagunak badira, zalantzarik gabe. Hor ditugu, esaterako, Patziku Perurena edo Patxi Zabaleta. Baina ez dira bakarrak. Gutxienez 13 dira zer edo zer idatzi eta argitaratu duten leitzarrak, eta guk idazle eta lan horien zerrenda hona ekartzea erabaki dugu, denon jakingarri. Idazlan horiek guztiak Leitzako liburutegian daude apal berezi batean, beraz, kontsultarako edo irakurketarako de-

non eskura.

Tartean literatur lan ugari duzu, baina baita bestelakoak ere: ikerketak, dibulgazio lanak, kronikak... Baliteke, hala ere, baten bat sartu ez izana. Horrela baldin bada, eta irakurlea horretaz jabetu baldin bada, jakinaraztea eskertuko genioke. Besterik gabe, hauxe duzu bertako «produktu» hauen zerrenda, ordena alfabetikoan:

Elosegi, Arturo:

- *Sexua, eboluzioaren motore: ugal-estrategiak joko ebolutiboan.*

Elosegi, Migel Mari:

- *Piztizaleon urtekaria*

Erkizia, Antton:

- *Beti ttuntun gaittun gu*

Fagoaga, Luis:

- *Gurdiak (Los Carros Euskaros)*

Lizartza Iribarren, Antonio de:

- *Memorias de la conspiración (1931-1936)*

Lasarte, Manuel:

- *Beranduko lanak (bizitza eta bertsoak)*
- *Bertso mordoxka*
- *Enbor zarraren ezpalak*
- *Gordean neuzkanak*
- *Kantuaren ordainez*
- *Lazkao-Txiki gogoan*
- *Uztapide gogoan*

**Olano, Mikel:**

- *Areso eta Leitzako hizkerak —bertako hitz eta historian barrena—*
- *Bizkarrik ez dudan emakumea*
- *Puzlea (Tene lehiaketa 1996)*

Perurena, Iñaki:

- *Perurena*

Perurena, Patziku:

- *Emily*
- *Etorrerakoak*
- *Euskarak sorgindutako numeroak*
- *Harripilatan ezkututzen zeneko apo tipiaren burutazioak*
- *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra*
- *Isileko kantak*
- *Joannes d'iraolaren poema bilduma*
- *Koloreak euskal usarioan*
- *Koloreak «Orixe»ren begian*
- *Leitzako errege erreginak (ahoz belarrirako urre altxorretan)*
- *Marasmus femeninus: Joanaren gutun zaharrak*
- *Nikolas Ormaetxea, Orixe: Hiru Belarriko Gizona*
- *Ni aldekoen kontrakoa naiz*
- *Zurian zirika*

**Sestorain, Gotzone:**

- *Basamortuan oasiaren bila*

Zabaleta Urkiola, Iñaki:

- *110. street-eko geltokia*
- *Bertsoaren ezpata*
- *Zodiakoaren munduan galdua*

Zabaleta Zabaleta, Pakita:

- *Euskal Irakaskuntza Nafarroan. Normalizaziorako oinarriak*
- *Euskara Nafarroan: 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikoak*
- *Nafarroako Mapa soziolinguistikoa. 1991: biztanleria euskaldunaren dinamika eta bilakaera*

Zabaleta, Patxi:

- *Arian ari*
- *Badena dena da*
- *Errolanen harria*
- *Euskaltzaindian sartzea*
- *Euskomunia ala Zoroastroren artalde!*
- *Nafarroako gudaostearen azken mariskala*
- *Ukoreka*



GORRA

Ziñuzen

ADITZA!

Ziñuzen, oi ziñuzen
Aditzen artean errege
Estutasunetan adiskide
Mingainaren ezina
Ezintasunaren gordina
Konpontzeko komodina
Adimena trabatu eta
Besterik ez bazen
Zu erabiltzen ZIÑUZEN

Bai, omenaldia merezi baitu. «ZIÑUZEN» aditza, Leitzan den aditzik emankorrena.

Edo ez zaizu inoiz gertatu? Zerbait esaten hasi eta, zasta! hasi orduko ohartu zara esaldia borobiltzeko aditzarekin arazoak izanen dituzula: «Jodeee! Oain ze esan beat? Nola konpondu beat? Batutik tiratzen hasiko naiz? Zin... zintuz...zintuz-te. Jode! Hori're ez da makala. Ah! Bakit. Ziñuzen. Horrek denetako balio do!». Eta «ziñuzen» esaten duzu, gehiegi arriskatu gabe.

Estatistikoki, asmatzeko aukera handia daukazu. Eta asmatu ez baduzu, disimulatu



Leitzar madarikatuak!
Ziñuzen, ziñuzen eta
ziñuzen!

samar geldituko da. Nolanahi ere, aditz bakoitza bere tokian erabiltzea gomenatzen dugu guk*. Aitortu behar da, hala ere, «Ziñuzen»ek aukera dezente ematen dituela, «ziñuzen»zaleen pozgarri.

«Leitza eta Aresoko hizkerak» liburuko aditz-tauletan, adibidez, «ZIÑUZEN» aditza 8 toki ezberdinetan agertzen da. Beraz, 8 esaldi hauek entzun litezke Leitzan:

- (Nik) atzo (zu) etxetik atetzen ekusi ZIÑUZEN.
- (Nik) atzo (zuek) etxeaño eman ZIÑUZEN.
- (Hark) (zu) atzeneko batzarren izaute ZIÑUZEN.
- (Hark) bulkatu ZIÑUZEN (zuek) lan hoi ittea.
- (Guk) (zu) baztertu ZIÑUZEN atzeneko proban.
- (Zuek) eman ZIÑUZEN (haiek) etxea
- (Haiek) (zu) asko laundu ZIÑUZEN
- (Haiek) sartu ZIÑUZEN (zuek) talde hortan

Ez al du, bada, omenalditxoa merezi «ZIÑUZEN» aditzak? Baten batek esan du ZIÑUZEN aditza erdarazko «pitu-far» aditzaren parekoa dela. Agian gehiegitxo da, baina hala ere, eta esker onez, horra gure omenaldia.

* Oharra: esan bezala, ez gara denetarako «Ziñuzen» erabiltzearen aldekoak, eta ez dugu «ziñuzen»itisa justifikatu nahi. Beste aditzak ere zerbaiterako sortu zituzten atzoko eta herenegungo leitzarrek.



Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel.: 948 51 04 67 - LEITZA

Perurena

Harategia

Tel.: 948 51 01 64



Erreka, 3 behea - Tel.: 948 51 06 14 - LEITZA
Elbarren, 35 - Tel.: 948 61 06 46 - LEITZA
San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 65 00 41

zer diozu?

eta zuk,

Rebeka Rodriguez



- Itturizarrea edo Gazpillozulo? Gazpillozulo.
- Hotza edo beroa?. Beroa
- Txokolateak menpekotasuna sortzen omen du... Bai. Oso txokolatezalea naiz.
- Behiak eroak, gizakia? Gizakia ere bai.
- Irakurri duzun azken liburua? Dezente pentsatu ondoren... (ez du gogoratzen. Nonbait, ez du aspaldi deus irakurri)
- Oporretarako leku bat? Hondartza.
- Oporretara norbaitekin joan edo bertan ezagutu? Norbaitekin joan.
- Bizitzeko leku bat? Herri bat.
- Jateko zer? Txokolatea.
- Kolore bat? Beltza.
- Kirolari bat? (Tik-tak, tik-tak denboraren joana). Ez dakit.
- Abesti bat? Ezin dut aukeratu. Musika orokorrean, gustatzen zait.
- Zer duzu faltan? Gauza asko.
- Eta soberan? Gutxi.
- Taberna batera sartzean, irristatu eta hankaz gora erori zara... Barrez lehertuko nintzateke.
- Zure lehenbiziko mozkorra non eta noiz? Leitzan aspaldi.

Andi

- Euskal Herriko edo Londongo parranda? (Piska batean pentsatu ondoren). Hemengo, hemen beti dago kontzertu edo festaren bat.
- Hotza edo beroa? Beroa.
- Txokolateak menpekotasuna sortzen omen du. (Jateko txokolatez ari ginela-eta ezin akklaratzuz ibili gara, baina azkenean...). Ez.
- Behiak eroak, gizakia? Berdintsu.
- Irakurri duzun azken liburua? (Ez dakit idazten asmatuko dudana...). «Experience in India».
- Oporretarako leku bat? Malasia.
- Oporretara norbaitekin joan edo bertan ezagutu? Neskarekin beti.
- Ingalaterrako garagardoa edo Euskal Herriko sagardoa? Ingalaterrako garagardoa.
- Bizitzeko leku bat? Hauxe.
- Jateko zer? Banabarrak, arraina, txuleta...
- Kolore bat? Gorria
- Kirolari bat? Perurena.
- Abesti bat? Kanta asko gustatzen zaizkit. «The Beatles»en edozein.
- Zer duzu faltan? Auskalo!
- Eta soberan? Auskalo!
- Taberna batera sartzean, irristatu eta hankaz gora erori zara... Kristoren algarak.

